

BESTELAKO XEDAPENAK

INGURUMEN ETA LURRALDE POLITIKA SAILA

4006

172/2015 DEKRETUA, irailaren 15ekoa, zeinen bidez kargutik kentzen baitira Bilboko Portuko Agintaritzako Administrazio Kontseiluko kide batzuk, eta beste batzuk izendatzen.

Irailaren 5eko 2/2011 Legegintzako Errege Dekretuak Estatuko Portuei eta Merkataritzako Nabigazioari buruzko Legearen Testu Bategina onartzen du. Atariko titularen II. kapituluan, interes orokorrekoen artean sailkatutako portuak arautzen dira. Euskal Autonomia Erkidegoari dagokionez, Bilboko eta Pasaiaiko portuak sartzen dira interes orokorrekoen artean.

Estatuaren lurraldea antolatzeko modua eta lurralde horretako interes orokorreko portuek autonomia erkidegoetan duten eragin ekonomiko eta sozial handia kontuan hartuta, aipatutako legegintzako errege-dekretuak beharrezko neurriak ezartzen ditu erkidegoek portuetako agintaritzaren antolakuntzako egituretan parte-hartze handiagoa izan dezaten. Izan ere, agintaritza-egitura horiek portuak artezten dituzten herri-organoak dira.

Hain zuzen ere, honela diote Estatuko portuei eta merkataritzako nabigazioari buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen irailaren 5eko 2/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren 30. artikuluen 1. eta 2. paragrafoek:

«1.— Administrazio Kontseiluak honako kide hauek izango ditu:

a) Erakundeko presidentea, Administrazio Kontseiluko buru izango dena.

b) Berezko kide bat; kide hori itsas kapitaina izango da.

c) Gutxienez 10 bokal, eta gehienez 13. Kanariar eta Balear uharteetarako, ordea, 16 artekoa izango da bokal-kopurua. Autonomia-erkidegoei edo Ceuta eta Melilla hiriei dagokie kopuru hori ezartzea, baita kideak izendatzea ere.

2.— Autonomia-erkidegoek edo Ceuta eta Melilla hiriek, c) idatzi-zatian aipatu diren kideak izendatzerakoan, honako irizpide hauek errespetatuko dituzte:

a) Estatuko Administrazio Orokorraren ordezkaritza kide horietako hiruk eta itsas kapitainak izango dute. Kideetako bat estatuen abokatua izango da, eta bestea, Estatuko Portuak era-kunde publikokoa.

b) Autonomia-erkidegoaren ordezkaritza kide horietako lauk eta lehendakariak izango dute.

c) Kanariar Uharteetan, kabilido bakoitzak ordezkari bat izango du, eta, Balear Uharteetan ere, kontseilu bakoitzak ordezkari bat izango du.

d) Portuaren zerbitzugunea euren mugartean duten udalek Kontseiluko gainerako kideen % 33ko ordezkaritza izango dute. Zerbitzugunea udalerrri batean baino gehiagotan kokatuta egonez gero, lehenik, Portuko Agintaritzak administratutako portuari edo portuei izena ematen dion udalerriri edo udalerriei egokituko zaie ordezkaritza; ondoren, gainerako udalerriei, zerbitzugunearen eraginpean duten azalerarekiko proportzioan.

e) Honako hauen ordezkari izango dira Kontseiluko gainerako kideen % 66a: merkataritza-, industria- eta nabigazio-ganberak —egun, merkataritza-, industria-, zerbitzu- eta nabigazio-ganbera

ofizialak–; enpresa- eta sindikatu-erakundeak, eta portuen arloan garrantzi handia duten sektore ekonomikoak.

Administrazio Kontseiluan ordezkaritza duten administrazio publikoek, erakundeek eta organismoek proposatuta egingo da Kideen izendapena, nahitaez. Estatuko Administrazio Orokorraren kasuan, Estatuko Portuak izeneko erakunde publikoaren lehendakariak egingo du proposamena.

Administrazio Kontseiluko kideen izendapenak, lehenengo ataleko c) idatzi-zatian aipatzen denak, lau urteko indarraldia izango du. Izendapena berritu ahal izango da, hargatik eragotzi gabe hurrengo lerrokadan ezarritakoa.

Kontseiluko kideak kargutik kentzeko erabakia autonomia-erkidegoko organo eskudunak hartuko du, kide horiek ordezkatzeko dituzten antolakundeek, organismoek eta erakundeek hala proposatuta.»

Ondorioz, Eusko Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legean, Ingurumen eta Lurralde Politika Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzeko den apirilaren 9ko 196/2013 Dekretuaren 4. artikuluan eta Estatuko Portuei eta Merkataritzako Nabigazioari buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen irailaren 5eko 2/2011 Legegintzako Errege Dekretuan ezarritakoari jarraituz, Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburuaren proposamenez, eta Gobernu Kontseiluak 2015eko irailaren 15ean egindako bilkuran gaia aztertu eta onartu ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT:

1. artikulua.– Aipatu entitate eta erakundeen ordezkaritzan diharduten honako hauek kentzea Bilboko Portuko Agintaritzako Administrazio Kontseiluko kide kargutik:

Bizkaiko Foru Aldundiaren ordezkaritzan:

– Itziar Garamendi Landa andrea.

Bilboko Udalaren ordezkaritzan:

– José Luis Sabas Olabarria jauna.

2. artikulua.– Aipatu entitate eta erakundeen ordezkaritzan diharduten honako hauek izendatzea Bilboko Portuko Agintaritzako Administrazio Kontseiluko kide:

Bizkaiko Foru Aldundiaren ordezkaritzan:

– Imanol Pradales Gil jauna.

Bilboko Udalaren ordezkaritzan:

– Ricardo Barkala Zumelzu jauna.

AZKEN XEDAPENA

Bilboko Portuko Agintaritzaren Administrazio Kontseiluko lehendakariari izendatutako kide berriak nor diren jakinarazten zaion egunetik aurrera izango ditu ondorioak dekretu honek, eta dekretua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

Vitoria-Gasteizen, 2015eko irailaren 15ean,

Lehendakaria,
IÑIGO URKULLU RENTERIA.

Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburua,
ANA ISABEL OREGI BASTARRIKA.